


LANGILEOK HONDAKINEN KUDEAKETA EREDUA ERABAKI NAHI DUGU! ERRAUSKAILURIK EZ!

Gipuzkoako Foru Aldundiak, gizartean dagoen kontrako jarrerari eta aurkeztu diren alternatibei kasurik egin gabe, Zubietako erraustegiaren proiektuarekin aurrera jarraitzea erabaki du. Izatez, hasi dira jada eraikuntza lanak. Gipuzkoako jendarteak dituen benetako beharrei erantzuteko behar diren ehunka milioi euro guztiz kaltegarria den azpiegitura hau eraikitzeke erabiliko dituzte. Onartezina.

Azken urteetan Gipuzkoan hondakinen kudeaketari dagokionez izan diren aurrerapausoak atzera egiteko bidean daude, izatez, gaikako bilketa sistemak aldatu diren herrietan, derrigorrez birziklatzetik hautazkoa izatera pasa denetan, gaikako bilketa eta birziklapen tasek behera egin dute modu esanguratsuan eta oso denbora gutxian. Erraustegia eraikitzen ari direnek hondakinak behar dituzte erraustegiaren negozioa borobila izateko, eta lehen pausua tasa hauek behera egitea da. Erraustegia jana behar du.

Erraustegia beharrezkoa ez izateaz gain, eragin kaltegarrien iturri ere bada:

- **Arlo ekonomikoan** aipatzekoak dira banketxeekin sinatu ziren kontratu ilunak eta enpresentzako kalte ordain neurrigabeak, gipuzkoarrontzat guztiz kaltegarriak zirenak. Baldintza hauek hauteskunde bezperan sinatu ziren, jakinik hauteskundeetatik atera zitekeen Aldundi berria erraustegiaren aurkakoa izan zitekeela eta ondorio larri hauek errealitate bihur zitezkeela. Eta hala izan zen. Bestalde, betikoei esleitzen zaie azpiegituraren eraikuntza, martxan jartzea eta mantenimendua. Ondoren, erretzeko hondakinak beti izango direla ziurtatzen zaie hautazko birziklapenaren bitartez, eta gainera hondakinak erretzearen ordaindu egingo die. Negozio borobila herritarron kontura eta langileei lan baldintza guztiz prekarioak ezarrita.



- **Osasunean** kalte larriak eragiten ditu. Hondakinak erretzeak kutsatzaile toxiko asko sortzen ditu eta hauek errautsetan kontzentratu eta atmosferara igortzen dira, baita inguruko nekazal lurretan metatu ere. Erraustegiaren inguruan lanean ari diren langileek osasun ondorio larriak pairatzen dituzte. Inguruko biztanleon bizi baldintzetan ere eragingo du. Kutsatzaile toxiko hauek fetuaren malformazioak, immuno-sisteman, hormona-sisteman eta nerbio-sisteman nahasteak, kalte neuronalak, eta arnas eta bihotzeko gutxiegitasunak sor ditzakete besteak beste.

- **Ingurumenari dagokionez**, erraustegiak zabortegei toxikoak behar ditu erretzen diren hondakinetatik sortzen diren errauts eta hondakin toxikoentzat, eta libixiatuekin izaten diren arazoak larriak dira. Bestalde berotegi efektuko gasen emisioak ere handiak dira, are gehiago kontuan izanik hondakinak erre ahal izateko gas naturala erabiltzen dela. Ez da egia beraz hondakinetatik energia berriztagarria ateratzen dutenik.

Urteak daramatzagu errealitate hau salatzen, gutxi batzuen negozioa gipuzkoarron osasuna eta ingurumenaren ginetik jartzen ari direla eta herritarron beharrei erantzuteko beharrezkoak diren baliabideak erraustegira bideratzen ari direla esanez. Langileok gai honetan ere badugu zer esana eta erabakietan parte hartzeko eskubidea, gure bizi eta lan baldintzetan eragina duen gaia baita hau. Badago alternatiba, hondakinen kudeaketa iraunkorra, birziklatuz, berrerabiliz eta murriztuz, Zero Zabor bidea jorratuko duen eredua. Dagoeneko demostratu da alternatiba erreala eta eraginkorra dela. Ingurumena eta pertsonak erdigunean jartzen dituen gizarte eredu berria beharrezkoa da.



ELA - LAB - ESK - STEILAS

¡LA CLASE TRABAJADORA QUEREMOS DECIDIR EL MODELO DE GESTION DE RESIDUOS! ¡NO A LA INCINERADORA!

La Diputación Foral de Gipuzkoa en contra de la opinión de parte de la ciudadanía de Gipuzkoa y sin hacer caso de las alternativas existentes, ha decidido seguir adelante con el proyecto de la incineradora de Zubieta. De hecho, ya han empezado las obras de construcción. Cientos de millones de euros necesarios para dar respuesta a las necesidades de la sociedad se destinarán a construir esta infraestructura dañina e innecesaria. Inaceptable.

Los avances logrados en la gestión de residuos estos últimos años en Gipuzkoa están en retroceso. En los municipios que se ha vuelto al reciclaje opcional las tasas de recogida selectiva y reciclaje han descendido de manera preocupante, y muy rápido. Los que están construyendo la incineradora necesitan residuos para quemar y que el negocio les salga bien, y el primer paso para ello es el descenso de estas tasas. La incineradora necesita alimento.

Además de ser una infraestructura innecesaria, acarrea consecuencias muy perjudiciales:


- **En el ámbito económico**, son de señalar la firma de contratos opacos con los bancos y las indemnizaciones desmesuradas para las empresas, totalmente perjudiciales para la ciudadanía. Estas condiciones se firmaron en vísperas electorales, sabiendo que la Diputación resultante podría ser contraria a la incineradora y que estas consecuencias tan graves se podrían hacer realidad. Y así fue. Las obras, la puesta en marcha y el mantenimiento se licitan a los de siempre. Después, mediante el reciclaje opcional, se les asegura que siempre tendrán residuos para quemar, y además las administraciones les pagarán por hacerlo. Un negocio redondo a costa de la ciudadanía. Mientras las personas que trabajan en ella sufren condiciones laborales precarias.

- **Causa graves consecuencias en la salud.** Quemar residuos genera muchos contaminantes tóxicos, que se concentran en las cenizas y que

llegan a emitirse a la atmósfera y se depositan en las tierras agrícolas del entorno de la incineradora. Ni que decir tiene que las personas que están trabajando alrededor de la incineradora sufren graves consecuencias en la salud. Las personas que viven alrededor de la incineradora también verán mermada su calidad de vida. Estos tóxicos provocan malformaciones fetales, trastornos en los sistemas inmunológico, hormonal y neuronal, daños neuronales, e insuficiencias respiratorias y cardíacas, entre otras.

- **En cuanto al medio ambiente**, la incineradora necesita vertederos tóxicos para las cenizas y escorias tóxicas, y esto acarrea graves problemas con los lixiviados. También genera grandes cantidades de gases de efecto invernadero, más aún teniendo en cuenta que se utiliza gas natural para quemar los residuos. Así que no es verdad que la energía obtenida en las incineradoras sea energía renovable.

Llevamos años denunciando esta realidad, que el negocio de unos pocos se está anteponiendo al medio ambiente y la salud de las personas que vivimos en Gipuzkoa, y que los recursos necesarios para responder a las necesidades reales de la ciudadanía se están destinando a la incineradora. La clase trabajadora tiene qué decir en este tema, y también tiene derecho a participar en la toma de decisiones, ya que es un tema que tiene un impacto directo en su vida y en sus condiciones laborales. Hay alternativa, una gestión de residuos sostenible, un modelo que recicla, reutiliza y reduce, un modelo que tiene como objetivo el Residuo Cero. Se ha demostrado que es una alternativa real y eficiente. Es necesario un modelo de sociedad que ponga a las personas y al medio ambiente en el centro.



ELA - LAB - ESK - STEILAS